



Marceline Harispuru amatxi ez dago argazkian, eri baitzen egun horretan. Hurrengo hiru belaunaldiak ordea, hor dira: haren alaba Marie-Claude Aguerre, eta horren alaba Michèle Aguerre. Besoetan azken honen seme-alabak.

## Euskara belaunez belaun

# Amatxi-ama-alaben bizipenak

“Hizkuntza bat ez da galtzen ...”, nork ez du JosAnton Artzeren aforismoa irakurri han edo hemen, euskara salbatzeaz axola zuen ostatu, elkarte ala besteren batean? Maximak zientziaren adierazle izaten dira, eta biziak askotan ditu baieztatzen. Itsasuko Mulienian euskararen gorabeheraz izan genuen solasak halaxe darakuskigu. Eta oharkabean, Lapurdiko jendeen hiru belaunaldiren bizipenak adierazgaitza den ama hizkuntzarekiko amodio minduaz mintzo dira.

ITZIAR MADINA

Argazkiak: Gaizka Iroz

BADATOR Donibane Garazi eta Baiona elkar lotzen dituen tren, burdinazko zamariaren ziztu eta klaska artean. Luze iduritzen zaidan une batez, Marceline Harisporu Itsasu Mulieniako amaxiren hitzak estaltzen ditu. Ezen denboran atzera eramanik baininduen Marcelineren ahots ahinak: XX. mendearen erdialde aitzinera, hain zuzen. Ordurako Errobi ibaiaren hegiak ongi ezagutzen zuen gaur bizirauten duen burdinbide sigisagatsua. Trenean langileen joan-etorria, hemengo eta hango gurutzatzea. Mulieniako etxalde txikiak ere mugimendu hari begiratzeko zion, trenbide bazter-bazterretik. “Hura trabeskatu eta, Latsako eskolara joaten ginen. Ezkondu ondoan ere, aitamekin beti bizi izan naiz etxe honetan. Hartako gara holako sabantak!”. Umorea eta gogo ernearen azpitik, erranaldi sotil bakarrak ager ditzakeenak izugarriak dira. Marcelinek, bere adineko euskaldun laborari gehiengoak bezala, jakitate eskasiaz gutxien du bere burua. Ezin bestela izan. “Ilustratu” ala “sabanten” ideologiak zenbait mende ditu. Nekazariak, horra hor zikin eta urrintsu saldoa. Nekazari izateaz gain lekuko hizkuntzan hitz egiten bazuten, bada, Victor Hugo bera ere laidoztatzaileetan lerrotutako zen. “Hizkuntza hila mintzatzeko pentsaeran hilobia izatea da”, argitaratutako zuen besteak beste, *Quatre-vingt-treize* liburuan.

“Euskara etxean ikasi dut –segitu du ezti Marcelinek–. Beti mintzatu izan gara euskaraz. Eskolara joan ginelarik hasi ginen frantsesa ikasten. Ez zen aizu euskaraz aritzea. *Bâton basque* egur puskattoa ematen ziguten, bestela. Goizetan errientsak norbait ematen zion egur puska hura eta gero behar zen ahal bezainbat igorri, eskola finitu orduko. Bestela, hori zuena zen puni. Eskolan mutikoak neskekin nahasiak ginen, eta mutikoak azkarrago zirenez, neskei pasatzen zieten”.

Marcelineren haur eskuak irudikatzen ditut erratzaren giderrean, emandako zigorraren arrazoiari pentsatzen... berdin beste umeen trufak jasaten... “Ez, beste haurrak

ez ziren gaiztoak. Ez naiz oroitzen miseriarik egirik”. Orduan –ezinezkoa izanen zitekeela jakin arren– ez dezaket galdegin gabe utz: “Eta ez duzue makila hori nonbait abandonatu, ezkutatu sekula?”.

### Hiru belaunaldi Latsako eskolan

Errobi ibaiaren isuriak nola, hala Mulienian ere biziak aitzina egin zuen, emeki. Marceline ezkondu zen eta bi hamarkada lehenago bera bezala, seme-alabak Latsako

**“Frantsesa mintzatzeko moda bilakatu zen. Jendeak gehixeago sentitzen ziren horrela. Hain segur ere, euskaldunek berek utzi dute euskara eskapatzen. Bazen ustea euskararekin ez genuela fitsik eginen”**

**MARCELINE HARISPORU, AMATXI**

eskolan hasi zitzaizkion. “Nik ere han nuen frantsesa ikasi”, dio Marie-Claude Aguerre Marcelineren alaba gazteenak. “Baina ez naiz oroitzen amak aipatzen zuen makilarik ezagutu izanaz. Anai-arreba zaharragoekin frantsesa pixka bat abiatua nuenez, ez dut zailtasun berezirik gogoratzen”.

“Gure denboran euskaldunak frantses guti egiten zuen, –dio Mulieniako etxekandere zaharrena–. Gazte lagun gehienak euskaraz aritzen ginen. Herria bera ere euskaraz ari zen. Plazan bazen frantsesa pixka bat. Hango gazteetan, partikularzki. Eta gero, aduanazainak eta poliziak baitziren, haiekin ari ginen. Gerla etorri zelarik frantses anitz ezagutu genituen. Orduan frantsesik ez bagenekien ahalketzen ginen”. Ahalkeak ala lotsak, eta lanik ez topatzeko beldurrak, erdarara plegarazi zituen euskaldunak. Kanbon zerbitzuan lan egiteko Marcelinek ere mihiratu behar izan zuen.

“Gure denboran, –jarraitzen du bere alaba Marie-Claudek–, lanera-

ko nahitaezko hizkuntza zen frantsesa. Ez zen orain bezala euskararen inguruan balioztatzen zen ofiziorik”. Marie-Claude hamasei urtetan hasi zen lanean postan eta han erretiratu da, berriki. “Momentu batez, postako zuzendaritzak aipatu zigun euskara egin geniezaieen hala nahi zuten bezeroei. Orduan Hiriburun nintzen eta han ez zen biziki euskararik mintzatzeko, non ez zen bestaldeko jendeari. Itsasuko mendiko etxetako itzulia egiten nuelarik aldiz, jendeak bazekitenez euskara mintzo nuela, hala aritzen ginen. Baina sorterritik urrunago, ez. Hots, ez dut lanean gutxi baizik baliatu euskara”.

Mundarrain eta Artzamendiren altzoetan, Errobik freskaturik eta hego haizea gereziondoak loreztatutik, erraz da XX. mendeko bigarren erdialdeko Itsasuko herri euskaldunari pentsatzea. Nahiz hori den lasterregi ahaztea 1882an Frantziako Estatuak martxan jarri zuen baitezpadako irakaskuntza, doan eta laikoa. Marie-Claude Aguerrearen ustez, horren ondorio zuzena euskara bizi publikotik desagertzea izan zen. “Gure gaztaroan euskara bagenekien ere, ez genuen lagunartean erabiltzen. Ezen behin eskolan hasi eta, frantsesez mintzo baikin. Itsasuarrekin frantsesez aritzen ginen eta aritzen gara. Nola eta norekin gerta, baina usuenik hala zen eta hala da”. Euskararen jariora ez bazen agortu, etxekotu zen. Hogeita hamar urte pasatuxeak dituen Michèle Aguerre Marie-Clauderen alaba, Mulienian blaitu zen txikitari, ondotik eskolak lapurtuko zionaz: “Eskolara joan arte euskara nuen ama hizkuntza. Amaxi Marceline eta amaren gisan, ni ere Latsako eskolara joan nintzen. Hastean frantsesik ez nekienez, arrunt galdua nintzen. Aldiz gero, poliki-poliki frantsesa nagusitu zitzaigun, baita Mulienian ere, alabaina, etxeko lanak egitean, irakurtzen ikastean... Eskolak sartu zigun frantsesa etxera. Ez genuen aitamekin ongi ikasitako euskara zaintzen jakin. Harrapatuak izan ginen eta oharkabean frantsesak gainditurik. Hortik eus-





Michèle Aguerrek, eskolara joan arte euskara zuen ama hizkuntza: “Amatxi Marceline eta amaren gisan, ni ere Latsako eskolara joan nintzen. Hastean frantsesik ez nekienez, arrunt galdua nintzen. Aldiz gero, poliki-poliki frantsesa nagusitu zitzaigun, baita Mulienian ere”.

kararen galera, ohartu ere ez ginela egin”.

Marceline Harispuru, Michèle-ren amatxirentzat ez da dudarik. Euskara itoztekoa zuen ur oldea isil-isilik goratzen hasi zen: “Frantsesa mintzatzea moda bilakatu zen, urguilua zen. Jendeak gehixea-go sentitzen ziren horrela; beste norbait. Hain segur ere, euskaldunek berek utzi dute euskara eskapatzen. Bazen ustea euskararekin ez genuela fitsik eginen”. Eta galtze horrek bihotzeko zimikorik ez al zien egiten galdetzean, alabatxiaren erranak berresten ditu Marcelinek: “Ez, orduan ez. Ez ginen urrundik ere ohartzten. Sekula ez genion buruari emanen euskararen galtzea posible zitekeenik”.

### Galdutakoaren dolua

Marie-Claude Aguerre ari da: “Haurrei naturalki, egiten diegun lehenbiziko lengoaia euskara da. Gure hurrek ez zekiten frantsesik eskolara joan zirelarik. Baina gero erdarara lerratzea jin zitzaigun. Preseski urte haietan, euskalgintzaren aldarrikatze politikoa sortu zen, eta gaur egun bestelako balioa du euskarak. Orain, alabatxi eta sematxiarekin osoki euskaraz ari gara”.

Nola bizi izan ote zuen Itsasuko herriak 1970eko urteen itzulian Ipar Euskal Herrian sortu zen euskararen inguruko mugimendu poli-

tizatua? Eta Mulieniak? Marie-Clauder burura datorkion lehen hitza “beldurra” da. “Lehenbizi beldurra genion. Ez baikin ohar-tzen euskara gal zitekeenik. Batabatean, bortizkeria erabiltzen zuen

**“Gaztaroen euskara bagenekien ere, ez genuen lagunartean erabiltzen. Ezen behin eskolan hasi eta, frantsesez mintzo baikin. Itsasuarrekin frantsesez aritzen ginen eta aritzen gara”**

**MARIE-CLAUDE AGUERRE, AMA**

mugimendu bati euskara loturik ikusteak izuarazi gintuen”. Ez baita azaltzen arazo xamurra, Michèle alabak honela gehitzen du: “Urte haietan ‘abertzale’ hitzak ikastolak eraikitzen nola etxe-agentziak leherrazten zituzten jendeak erakusten zituen. Dena bat zen eta horrek zuen beldurra sortzen, bai”.

Eta zehazkiago, zeren beldurra, ote? Izan zitekeen euskara mintzatzegatik “terroristatza” hartua izateaz. “Ez, ez, –dio zezenari adarretatik heldurik, Marie-Claude Aguerrek–. Terroristak euskaldunak izateaz ginen beldur. Eta ideia

guztiak nahasteaz, gaiztagin gisa hartuak izateaz. Iparretarrak ekintzek zer kalte ez zuten ondoan egiten... Eta hori ez zen ongi ikusia...”. Berriz ere, alabak amaren pentsakizuna osatu du: “Itsasun adibidez, GALEk jende batzuk hil zituen. Bada, herriko jendeak ez zuen bereizketarik egiten GALEn eta Iparretarrak ekintzen artean. Interpretatzen zuten euskaldun batek jendea hil zuela eta ezin onartua zitzaien. Badakizu, ezagutzen ez duzularik beldurtzen zara eta ez zara hurbilgotik ulertzera saiatzen. Tabu handia zen...”. Eta bukatzeko, amak alabaren azalpena borobildu du: “Denbora haietan euskaldun politizatu haien lana ez zen behar bezala hartua izan ezen anitzek, eta ni lehenbizikoetatik, ez ginelako horri interesatzen. Geroago aldiz, egin gara. Eman dezagun familian, hurbilgotiko jendeak arazoaren gorabehera azalduz. Mulieniakook ez genituen haurrak ikastolara igorri, etxetik urrun genuelako ikastola. Baina hurbil izan bagenu ere, ez dakit zer erabakiko genuen...”.

Errobi ibaiaren udako ur mantsok lagundu zukeen Mulienian erein haziaren loratzea. Izan ere Kanboko kolegio publikora joanik, Michèle gazteak euskara berrikasteari ekin baitzion. “Kolegioko lagunei esker izan zen. Euskararen ulermena nuen, baina mintzamen

galdua. Lagun batekin hasi nintzen berriz mintzatzen. Berak zuzentzen ninduen”. Frantsesa tutik ez zekien aitaren amarekin hizketa luzerik ez bazezakeen segi ere, gutxienez ulertzen zuen. Eta Ipar Euskal Herriko gazte euskaltzale bat baino gehiago hunkitu zuen sukarrak Michèle Aguerre ere harrapatu zuen: “Lagunekin Hego Euskal Herrira joaten hasi ginen, hangoa erreferentziatzat genuelako. Kulturari, hango dinamismoak eta aberastasunak gure belaunaldi-ko anitz erakarri zituen, bidenabar euskarari interesaraziz”. Gaur egun, Michèle euskara hitz egiteaz gainera, AEK-ko Itsasuko gau- eskolan irakasten ere du. Haatik, arantzak ziztaten du bere baitan, ezen “gaur euskara badakit ere, dolu dut etxeko, Itsasuko euskara galdurik. Gure aitaxi eta ama entzuten ditudalarik, ohartzen naiz bakarrik haien bi belaunaldien arteko euskarak zenbat galdu duen, hiztegian bereziki”.

### Hiztunen kopurua balantzaka

Marie-Claude Aguerre Itsasuko Mulieniako alabak uste du, jendeak euskarari heldu nahi diola berriz: “Gaurko aitamek atxikimendua badute. Gure denboran ez bezala, euskara bagenuelarik ez genuen deus egiten horren atxikitzeke”. Egia da Ipar Euskal Herriko haurrek eskolan euskara ikasteko bideak erraztuz eta emendatuz doa- zela. “Gehiago dena –dio Marie-Claudek–, lehen euskara gutxietsia zen. Ez zen urrundik ere orain bezala, euskararen inguruan lanak eskaintzen baitira”. Michèle Aguerre bere alabarentzat berriz, “jende anitzi gertatu zaio asumitu duela euskara arra-ikas daitekeela. Kasu horietan anitz direla ikusiz, erraza- goa dute pausoa egitea. Haatik, gau- eskoletan oraindik kanpotar gehia- go da hemengoa baino. Dena dela,

ahalkearen pisua ttipitzen ari da”.

Izan ere, silogismoak dio euska- rak bilakatzen gaituela euskaldun, euskarak ematen digula nortasun. Honenbestez, euskara galtzeak nortasunaren galtzea lezarke. “Hori da, –bota du zalantzarik gabe Michèlek–. Jende batzuk hortaz ohartzen dira. Beste batzuk oraindik ez. Hortan dut pena. Jen- dea ez baita ohartzen euskara gal- tzeak zer arrisku dakarren: ditugun balore guziak peko errekaratzea, kultura osoa zalantzan ematea”.

**“Gaur euskara badakit ere, dolu dut etxeko, Itsasuko euskara, galdurik. Gure aitaxi eta ama entzuten ditudalarik, ohartzen naiz bakarrik haien bi belaunaldien arteko euskarak zenbat galdu duen, hiztegian bereziki”**

**MICHÈLE AGUERRE, ALABA**

Bere amona Marcelinek gogoeta eginik, seriooki erantzun du ezetz, ez zaiola iduri posible denik eus- kalduna izatea euskararik jakin gabe. “Non ez den hemen sortu, norabait joan eta berriz jinikakoa”, zehaztu du Marie-Claude Ague- rrek.

Geroari begira, baikor da Marie- Claude Aguerre. Ipar Euskal Herrian euskara mantentzeko zer egin behar litzatekeen ezin garden- kiago dakusa: “Egia da inkestek agertzen dutela euskal hiztun gehiago hiltzen dela sortzen dena baino. Ez dugu oraindik orekarik atzeman. Baina haurren nola hel- duen irakaskuntzan transmisio lanean segitzen badugu, balantza bestaldera okerraraz dezakegu”.

Eta Michèle bat dator amak dioela- rik eginkizun horretan herriko etxeek eta beste administrazio publikoek zer esan handia dutela. “Euskara erabiltzeko beharra sortu behar da leku guztietan, jendea ohar dadin ikasi gabe zer huts egi- ten duen. Oreka bilatu behar da elkarte- dinamikaren eta botere publikoen eskukaldi ekonomiko- ar- tean, herriaren indarra inpor- tanteena dela azpimarratuz, ezen azken hori gabe ez baikinakeke gaurko egoeran. Haatik, botere publikoen laguntzarik gabe hilko gara gure indarretan”. Halere, hiru emazteetan baikorrena da amatxi Marceline: “Euskararentzako ame- tsik banu, galdegin nezake gutxi- nez orain bezala joan dadila. Ez dadin dena utz ez gal arrunt. Ha- atik, ez dut errezetarik horretarako! Neroni ere frantsesera lerratzen naiz, eta!”. Eta irri egiten du, gozo- ki. “Baina plazer da ikustea haur ttipiek ere segitzen dutela ikasten. Etxean mintzatzen. Segida badago, gutienez nik ezagutzen dudan mendi zoko honetan”.

Mulienian eguzkiak ere barre dagiela dirudi. Agurtzeko unean, solasaldia bukatzean, airatzen dira hizkuntzaren pisu intimoa darakus- ten ohar batzuk. Aitaxirekin ezin euskaraz mintza dezakeela alababi- txiak, izan ere erdararen pleguak harremana ildotu dielako. Alabak berriz, ezin aitari frantsesik egin amari egin ohi dion eran, zeren nola zuzendu ote: “tu” erranez? ala “vous” errespetuzko distantzia markatzailea erabiliz?

Badoa Baionarako tren. Burdi- nazko bere ziztu eta klaskak euska- raren karranka minduak direla bururatzen zait. Orduan Errobi ibaia eskertzen dut, zeren bere isu- riak segurtasuna ematen baitit. Emaria du gozoa, etengabea. Hala- ber Ipar Euskal Herriko euskarak halatsukoa izanen ahal du... ■

**Babeslea: HABE**

**HADE**  
Helduen Alfabetatze  
Berreuskalduntze Erakundea

105 euskaltegi  
1.500 irakasle  
39.000 ikasle

**munduoro**  
euskaraz

www.habe.euskadi.net  
www.euskara.euskadi.net